

## **ZIENTZIA ETA ATLANTIDA** **PLATONEN MITOAREN BILA**

**Idazlea: Alfontso Martinez Lizarduikoa**

**Webgunea: [www.gaiak.net](http://www.gaiak.net)**

**2013/10/06**

Literatura klasikotik iritsi zaigun kontakizun enigmatikoenetako bat Platonen *Timeo* idazkian agertzen da. Kontakizun horrek Egiptoko iturriak aipatzen ditu eta bertan, antzinatean, Mediterraneoaren kostaldeak kontrolatu zituen nazio handi bati buruz hitz egiten da. Herri hark gizadiaren historian ezagutzen den lehen ontzidia antolatuta zuen, greziarren aurka borrokatu zuen eta, azkenean, itsasoan, bat-batean, “xurgatua” izan zen, ezagutzen den hondamendirik handienetako batek eraginda. Herri hura “atlantiar” izenez ezagutzen dugu eta bere lurraldea askotan aipatutako Atlantida da.

### **Mitologia eta arkeologia galdutako kontinentearen bila**

Platonen kontakizun mitologikoa buruan izanik, XX. mendearen hasieran, Arthur Evans arkeologo britainiarra Egeoko itsasoaren uharteak indulten hasi zen. Evansek bazekien, elezabar greziarren bidez, Kreta uhartean zibilizazio talasokratiko Garate bat izan zela. Baina, kontakizun haiek ez zuen inork benz hartzen. Eta Grezia baino lehen, leku haietan, herri zibilizaturik existitu ez zelako iritzia guztiz zabaldua zegoen.

Hala ere, Evans arkeologoak Kretaren lurrazpian antzinateko jauregi arranditsu bat arkitu zuen: Knosos izeneko jauregia. Geroago, bere lana Balkanetara, Asia Txikira eta, batez ere, Egeo itsasoko uharteetara zabaldu zuen. Lan hark aurkikuntza iraultzaileak eman zituen. Indusketetan, Kristo aurreko hirugarren eta bigarren milurtekoen artean, Egeon oso zibilizazio aurreratua izan zela egiaztatu zen. Zibilizazio hartatik greziarrek bere kulturaren zati handi bat jaso zuten (mitologia, hizkuntza, artea...). Ezezaguna zen zibilizazio hari “minostar” izena ipini zioten, Teseoren mitoan, itsasoaren erregetzat jotzen zuten Minosen ohorez.

### **Geologia itsaspeko substratoak zientifikoki aztertzen hasi zen**

1940ko hamarkadan, espedizio zientifiko suediar bat hasi zen Mediterraneoaren itsas hondoak aztertzen, Greziaren, Ziklade uharteen eta Kretaren inguruan. Hurrengo hamarkadetan, estatubatuar eta errusiar ikertzaileek ekingo zioten lan horri. Eta emaitzak ikusgarriak izan ziren. Itsas hondoan, garai historikoetan lehertutako sumendi erraldoi baten erupzioaren hauts-geruzak nonahi sakabanaturik aurkitu zituzten. Itsas geologoen ikerketek neurtu dutenez, K.a.1500 urte aldera, Tira uhartean (gaur Santorini izenez ezagutzen dena) izugarritzko leherketa bolkanikoa gertatu zen, bere potentzia 1883. urtean Krakatoa sumendian gertaturiko erreferentea baino handiagoa izan zela.

Santorinik, egun, sumendiaren zentroa itsas azpian du murgildurik eta antzineko galdararen hormak dira gaur zutik irauten diren bakarrak, Egeoren lurraldeko zonalde turistiko paregabea bihurturik. Orain dela 3.500 urte, Tira inperio minostarraren uharterik garatuenetako bat izan zen, arkeologoek itsasazpian jasotako galdararen bolkanikoaren hormetan aurkitu ahal izan dutenez.

### **Tiraren bukaera kataklismikoa itsas geologiak eraiki du**

Tira uhartea minostar zibilizazioaren oinarritzko erreferentea izan omen zen. Baina, zibilizazio hark, susmatu gabe, itzalita zegoen sumendi baten gainean eraiki zuen hiriburua. Eta inork ezin izan zuen iruditu geroago gertatuko zena. Irudizko lasaitasunaren milaka urte iragan ondoren, sumendiaren galdararen presioa handituz joan zen eta une batean sumendiak lehertu egin zuen. Horren ondorioz, zibilizazio sofistikatu hura itsas hondoetara bidalia izan zen.

Itsas jalkinek argi azaltzen digute urruneko garai haietan gertatu zena. Katastrofea erabatekoa izan zen. Lehertutako sumendi ikaragarri hark 20.000 km/s-ko abiadura zuten lurrikarak zabaldu zituen. Haien eragina Grezia eta Afrikara hedatu zen, eta bidean, Kretako jauregi guztiak deuseztatu zituen. Batera, tsunami itzela sortu zen. Horrek 350 km/h-ko maremotoa sortu zuen eta 70 m-ko olatuak. Tsunami hark Egeoko kostalde osoa urperatu zuen. Eta, bukatzeko, polikiago mugitu zen baina guztiz hilgarria izan zen 70 km-ko errauts-hodeitzar batek zibilizazio hura betiko estali zuen. Egeotik bizirik irten ziren zenbaitek Egiptoraino heltzea lortu zuten eta han gertaturikoa kontatu ahal izan zuten. Eta hiru mila urteko bidaia egin ondoren, Platonen bidez, gureganaino heldu zen.

### **Platonen kondaira gaur egungo diziplina zientifikoaren argitan**

- 1) Egeoko uharteetan Arthur Evansek arkeologo ospetsuak egindako aurkikuntzetan (batez ere Kretan), dozena bat jauregi azaleratu ziren, beren artean Knosos izenekoa erreferente bihurtu zela. Jauregi haien aurkikuntza izugarritzko ustekabea izan bazen, harrigarriagoa izan zen altxor arkeologiko hura guztia naturaren indar izugarri batek deuseztatu zuela konturatzea (lurrikara itzelaren ondorioz zibilizazio minostarra desagerrarazi zuen).
- 2) Arkeologoen batera, geologoen ere aurkikuntza itzelak egin zituzten. Horiek itsaspean zegoen plaka tektoniko bat kausitu zuten. Tamaina txikikoa baina oso jarduera handikoa zen eta hedaturak Egeoko itsasoko zoru osoa estaltzen zuen. Itsas hondoan dagoen hauts bolkanikoaren analisiak argi utzi du orain dela 3.500 urte itsaspeko indar tektonikoek Tiran uharteko geroaldia bere mende nola hartu zuten. Leherketa bolkanikoen artean, Tira desegina gertatu zen eta zatirik handiena itsasoak irentsi zuen. Ondorioak erabatekoak izan ziren. Tira sumendi bihurtu zen. Botatuko hautsak Krakatoak jaurtirikoak baino hiru aldiz gehiago izan ziren. Hauts horiek, itsas hondoan pausatu ondoren, sumendiaren historiaren erregistroa utzi zuten eta geroaldian han gertatutako kataklismoaren testigantza bilakatu ziren.
- 3) Tiraren leherketa bolkanikoaren ezaugarri guztiek Atlantidaren desagertuarekin bat egiten dute. Jaso berri diren datazio geologikoen aurreko datazioekin bat egingo balute, Antzinaroaren kontakizun katastrofiko eta interesgarrienetako bat argitzeko gertu egongo ginateke.

